



Arte Ederren Fakultateak, UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzako EHU Kulturarekin eta Bilbo Ekintzarekin batera, honako deialdi hau egiten du:

Bizkaia Aretoan eta Bilboko kaleetan esku hartze artistikoak egiteko ideia lehiaketa

Baldintzak:

- Arte Ederren Fakultatean matrikulatuta egotea 2018/2019 ikasturtean, graduan, masterrean edo doktoregoan.
- Proiektua banakakoa edo taldekakoa izan daiteke. Edonola ere, sari ekonomikoa proiektuari emango zaio.

Esku hartzeak egiteko lekuak:

- Bizkaia Aretoa (Abandoinbarra etorbidea 3, Bilbo):
 - Beheko solairuko kristalak.
 - Jendea ibiltzen den tokiak (ez du eragotzi behar eraikineko jarduera eta kontuan hartu beharko dira segurtasun neurriak).
- Bilboko hiria:
 - Espazio publikoa, hau da, kaleak eta udal titulartasuneko bestelako espazio irekiak.

Helburua:

- Proiektu artistikoak gauzatzea aipatutako lekuetan (bi eta bost proiektu artean, guztira).
- Proiektuak maiatzaren 2tik 11ra bitartean egingo den Bilbao Art District 2019 ekimenaren barruan egongo dira.

Ezaugarriak:

- Esku hartzeak itzulgarriak izan behar dira. Hau da, desmuntaketa egindakoa, espazioa lehen zegoen bezala geratu behar da.
- Muntaketa eta desmuntaketa artisten kontura joango dira.
- Edozein teknika, formatu eta euskarri erabil daiteke.

Diru kopurua:

- Gehienez 1000 € proposamen bakoitzari.

Diru kopuru horretan sartuta daude ekoizpen gastuak eta egilearentzako diru laguntza (inoiz ez 500 € baino gehiago).

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Garatu beharreko proiektua paperean eta pdf formatuan (gehienez 5Mb).
- Egileen lan pertsonalari buruzko dokumentazioa/porfolioa.
- Ekoizpen gastuen aurrekontu zehatza.

Datak:

-Dokumentazioa **apirilaren 15era arte** aurkeztu ahal izango da Arte Ederren Fakultateko Unibertsitate Hedakuntzako Dekanordetzan.

-Proiektuaren iraupena bat etorriko da Bilbao Art Discript-en ekimenarekin, hau da, maiatzaren 2tik 11ra.

Lehiaketan parte hartzeak berez dakar oinarriak onartzea eta betetzea.

Informazio gehiago:

ecultural.bellasartes@ehu.eus

arantza.lauzirika@ehu.eus